

Nafarroan ez da euskara existitzen

Nafarroako zenbait ikastetxetan bosgarren mailako ikasleei dohainik banatzen zaien Gaztelaniako liburuak jasotzen duen informazioak erabat hunkiturik utzi gaitu, bertan Nafarroa elebiduna dela ezkututzen baita. Liburuan badute kapitulu oso bat “lengoaia, hizkuntzak eta dialektoak” eta Espainiako Konstituzioaren hirugarren kapituluak zer dioen aipatu eta gero aitatzten da “Espainian Erkidego elebidunak dira: Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Balear Uharteak eta Euskadi. Modu ofizialean bi hizkuntza mintzo dira”

Egia da – zenbait alderdiren estrategia politikoaren ondorioz- euskara ez dela ofiziala lurralde osoan; era berean ukaezina da, zenbait pertsonari deseroso egiten bazaio ere, Nafarroan bi hizkuntza ditugula. Izena duena bada. Aipatzen ez dena ez dago. Anayak Nafarroa elebiduna dela ezkututzen du. Bestelako kontua da maila juridikoan zein estatus aitortzen zaien hizkuntza hauei. Nafarroan zinez ahula euskarari aitortzen zaiona, anakronikoa.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuari dei egiten diogu – baita alderdi politikoei ere – behar bezalako kudeaketa egin dezala informazio hau zuzen dezaten, Nafarroako errealitatea desitxuratzen baitu.

Estatuan salbuespena da Nafarroa, beste gainontzeko Erkidegoetan ez baitituzte hezkuntza eskubideak aitortzen – edo ukatzen – pertsonaren bizilekuaren arabera, edota eskaera luzatzen den Administrazioaren kokagunearen arabera. Egoera gairitzeko tenorea da. Euskararen legea onartu eta 30 urte geroago bestelako politikak egin behar dira, eta inbisibilizazioa, bazterketak eta zonifikazioa gairiditu.

Herritar guztion ondarea da euskara, baita hitz egiten ez dutenena ere. Nafarroan harro mintzo gara gureak diren produktuez: Lodosako piperrak, orburuak, zainzuriak... eta hau egiten dugu jaten ez baditugu ere. Egin dezagun berdin euskararekin, eraman dezagun maila sozial eta juridikora aitortza hau, euskararekiko begirunea eta horren bultzada. Nafarroan urte gehiegi daramagu hizkuntza bazterketa pairatzen. Egoera aldaraziko badugu, zonifikazioa gairiditu behar dugu, eta Euskara lurralde osoan ofizialtasuna aitortu.